

Nafarroako sindikatuekin elkar hizketa:

"Ez da lorpen txikia Nafarroako zazpi sindikatuak batu izana euskararen alde"

Duela hiru urte, AEK eraginda, Nafarroako sindikatuak lan munduan euskararen berreskurapena bultzatzeko ahaleginetan hasi ziren, euren arteko hitzarmen bat sinatuz. Gaur egun Hitzarmen honetan AEK, Nafarroako sindikatu guztiek eta Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak hartzen dute parte. Ahalegin hau benetan garrantzitsua denik ezin inork uka, horregatik, eta hurbilagotik ezagutu nahian, gurekin elkarrizketatzeko bildu dira mahai baten inguruan AEKko Eduardo Conde, CCOOko Xabier Barber, ELAko Juanjo Larraza, LABeko Juanja Iturralde eta Mikel Burgi eta UGTko Fernando Jurio.

Three years ago at the request of AEK (Coordination board of basque language learning groups for adults), the trade unions in Navarre began trying to promote the recuperation of the Basque language in the work place by signing an agreement among themselves. Today, AEK, all of Navarre's trade unions, and the Office for Linguistic Policy of the Navarrese Government are participants. This effort is undeniably of great significance and so in recognition of this fact and in an effort to get to know it at first hand, Eduardo Conde of AEK, Xabier Barber of Comisiones Obreras, Juanjo Larraza of ELA, Juanja Iturralde and Mikel Burgi of LAB, and Fernando Jurio of UGT have joined us in a panel discussion.

GALDERA: Aurten, hirugarren aldiz, Nafarroako sindikatuek hitzarmen bat sinatu duzue lan munduan euskara bultzatzeko. Egingo al zenigukete prozesu honen historia apur bat?

LAB: Esan daiteke, nahiz eta agian sindikatu batzuk honetan bageneukan halako kezka bat eta batzuk barruan zerbait hitz eginga eduki, orokorrean lehendabiziko inizatiba edo gai hau mahai gainean jarri zuena AEK izan zela. AEKri bururatu zitzaion bilera batera deitzea Nafarroako sindikatu guztiak 1990eko azaroan.

AEKk bultzatuta, beraz, bizpahiru bilera egin ziren eta sindikatuok gogoeta egin eta euren planteamendua asumitu genuen eta ondorioz dokumentu bat sinatu.

Dokumentua printzipio deklarazio modukoa zen eta bertan adierazten zen nola mundu honetan euskara baztertua egon den, zein garrantzia duen lan munduak normalkuntza prozesuan eta une horretatik aurrera saiatuko ginela gure esparruan euskara bultzatzen, batez ere hitzarmen kolektiboen bitartez, horretarako jarraipen batzorde bat osatuko zelarik.

Honi publizitatea eman zitzaion eta saiatu ginen une horretan abiatuta zegoen komenioen negoziazio orokorrean euskararen errebindikazioa sartzen, nahiz eta sakondu gabe eta neurri zehatzik hartu gabe.

Hau izan zen lehendabiziko fasea. Inizatiba kanpotik etorri baina sindikatuok barneratu genuen, UGTk ezik, une horretan UGT ez zen bileretara edo prentsaurrekora agertu.

91ko urtean ELA eta LABeko arduradunok jarraipen batzordearen lana eginez beste sindikatuak deitu genituen gaiarekin aurrera egiteko, uste baikenuen geure konpromisua egiazkoa zela, ezin zela geratu printzipio adierazpen hutsean.

LAB: Gai hau mahai gainean jarri zuena AEK izan zen 90eko azaroan. 91ko urtean ELA eta LABeko arduradunok beste sindikatuak deitu genituen, uste baikenuen geure konpromisua egiazkoa zela, ezin zela geratu printzipio adierazpen hutsean.

Irailean hasi ginen berriro biltzen sindikatu guztiak, ordurako negoziazio kolektiboaren epea jarrita zegoen eta ikusten zen gainera une eta abagadune horretan (krisia, komentzimendu gutxi,...) zaila zela, horregatik erabaki zen sentsibilizazio eta matrikulazio kanpaina egitea. Egin genuen diseinu bat, oso espontaneo, baina horregatik hain zuzen ere oso aberatsa, jende ugari hartu baitzuen parte. Ondoren Hizkuntz Politikarekin hitzegin genuen dirua lortzeko eta une horretan UGT gonbidatu genuen eta bildu egin zitzaigun, eta ordutik sindikatu guztiak gaude.

G: Komenioak aipatu dituzue batetik, bestetik sentsibilizazio kanpainak. Hitzarmen horretan jasotzen dena zer da? Euskara ikastaroak, edo euskarazko funtzionamendua enpresetan, enpresa bera euskalduntzea? Noraino iristen da guzti hau?

ELA: Haseran, esan bazala, nahiko helburu zabalak azaldu ziren. Batetik azaltzen da negoziazio kolektiboaren bidez zer lor daitekeen eta bestetik sentsibilizazio kanpainetan zein helburu jartzen diren. Momentu honetan zertan gaude? Sentsibilizazio kanpainetan. Bestea hor dago «asignatura pendiente» bezala, zailtasun handiak ikusi ditugu eta oraingoz egin

duguna, batipat, sentsibilizazio kanpainak izan dira.

Beste arlotan, enpresa mailan, zer egin daitekeen askotan hitz egin dugu, baina une honetan ez da batere erraza negoziazio kolektiboen bitartez gauzak lortzea: ordutegi barnean euskara ikasteko ikastaroak, enpresak euskara erabiltzea paperetan, etabar.

Egoera horixe da, nahiz eta besterik ikusi, poliki poliki joan behar dugu. Hase-ran gaude.

UGT: Sentsibilizazio kanpaina hauek egingo dutena laguntzea izango da. Zera ulertu behar da, negoziazio kolektiboan sartzen garenean eskari zehatz batekiko hunkitze egoera egon behar duela. Euskararekiko ere langilegoaren aldetik hunkipen une bat egon behar du, guztiek berengana dezaten, edo gutxienez negoziazioaren aurrean indarrez eutsi behar zaio.

Kanpaina hauen alderik ederrena, edo garrantzitsuena, enpresako langileak jarraiki hunkitzen aritzea da. Gaurdaino lan mundura iristen ez zen kanpaina mota da honakoa.

Hortik abiatuta, hunkitze horrekin, gaia naturala den zerbait bezala ikusiz, ez dakit zenbat denbora iragan beharko duen bai-

ELA: Momentu honetan zertan gaude? Sentsibilizazio kanpainetan zailtasun haundiak ikusi ditugu eta oraingoz egin duguna, batipat, sentsibilizazio kanpainak izan dira. Poliki poliki joan behar dugu. Hasieran gaude.

ELA: Euskararekiko ere langilegoaren aldetik hunkipen une bat egon behar du, guztiek berengana dezaten, edo gutxienez negoziazioaren aurrean indarrez eutsi behar zaio.

na gaia ez da izango orainartean bezain bereizgarria. Badu bere garrantzia ezen eskaera enpresetan sartzen ari zara, behar bada ez beste sektore batzuen garrantziarekin edo indarrarekin, baina langilegoarekiko nola sartzen zaren da esanguratsua.

LAB: Aitortu behar dugu gure saiakera oraindik apur bat boluntarista izaten jarraitzen duela. Gure mezua sensibilizazioa da, beti bi alderekin: ikasketa, ez dakienak ikas dezan, eta erabilpena. Agian oraingoz mezua besterik ez gara zabal-tzen ari, ez dugu normatiba bat landu enpresek hau eta beste egin dezaten esanez. Saiatzen gara fabriketan euskara ikasteko taldeak sortzen, laguntzak eskatzen eta dakienak erabil dezan bultzatzen.

Horregatik lehendabiziko kanpainaren mezua zen «sar ezazu euskara zure lantokian» eta aurrean esaten dugu «zergatik ez euskara ahora?». Beraz, mezuan esaten dugu erabilpena areagotu behar dela nahiz eta horretarako plangintza bat behar den eta oraindik ez eduki.

AEK: Lehenengo lan ildo hori, komenio-ena, piska bat utzita baldin badago ere, hor badago mahai honetan lortu zen hitzarmen bat eta horren arabera zehaztuta daude komenioetan gehienez eta gutxienez zer defendatu ahal den. Erran nahi dut akordio hori hor dagoela. Agian orain ezin da aplikatu, edo ez dago gaitasunik, edo ez da unea beharbada hori planteatzeko,

LAB: Aitortu behar dugu gure saiakera oraindik apur bat boluntarista izaten jarraitzen duela. Gure mezua sensibilizazioa da, beti bi alderekin: ikasketa, ez dakienak ikas dezan, eta erabilpena.

baina gerorako ere izan daiteke erreferentzia bat, eta hori hemen erditu zen, mahai honetan, sindikatuen artean.

LAB: Gertatu zena da agian beranduegi ekin geniola kanpaina horri eta hemen onartutako ildoak ezin izan ziren sartu, baina guk hemen dauzkagu definituta gehieneko eta gutxieneko eskakizunak enpresa esparru eta komenio moten arabera (enpresa haundiak, txikiak, konbenio probintzialak, enpresa mailakoak ..). Agian hurrengo negoziazio orokorrerako.

ELA: Hemen aztertua eta finkatua zegoen, falta dena da hori gero enpresa mailan nola tratatu edo nola eraman. Bestalde, Fernandok (UGT) esandakoa garrantzitsua da. Kontua zera da, langileen munduan nola ikusten da euskara? Hori da agian guretzat garrantzitsua. Lan publizitarioa egiten ari gara eta gizartearen aurrean ematen ari garen irudia eta mezua oso positiboa da. Hortik hasita, poliki poliki, euskara lan munduan gauza arruntzat ikus dadin nahi dugu. Helburua oso ambizioso da, eta hortik hasi gara.

G: Emaitzak non daude? Nabaritzen al da ondoriorik?

CCOO: Horrekin sartu aurretik zerbait esan nahi nuke. Nire ustez lan munduan ikusten da beste edozein tokitan baino gehiago euskarak hizkuntza minorizatu gisa dituen ezaugarriak. Lan munduan

normalean lantoki guztiak, erdi haundiak baldin badira gutxienez, mistoak dira hizkuntza aldetik: euskaldunak badira, erdaldunak baita ere.

Horrek nola eragiten dio hizkuntz minorizatuari? Bazterketaren bidez. Datu gutxi daukagu, baina ziur gaude lan munduan kanpoan baino askoz gutxiago erabiltzen dela euskara, bai langileen artean, baita langile eta enpresarioen arteko harremanetan. Kanpoan badaude guneak, familia edo adiskide artea edo beste, baina lan munduan kasualitate asko behar da bildu euskara lan harremanetan agertzeko. Hutsunea, orduan, beste tokietan baino haundiagoa da. Hori hasteko.

Bestalde, ekonomiak eta lan munduak gizartearen duten eragina ez da makala, pertsonalki ere langile edo enpresario bakoitzak egunero 8 ordu igarotzen ditu lantokian, bizitzaren herena lanari ematen dio. Ez da gauza txikia hor euskara baztertuta egoteko.

Hemen azpimarratu behar dena lortu den batasuna da. Irudi aldetik ez da lorpen txikia Nafarroako zazpi sindikatuak denok batu ahal izatea honetara, kontutan izanda beste tokitan ez dela horrelakorik oraindik gauzatu.

Guzti honetan eragina izan dute, batetik, euskara munduan eman den biltze prozesua eta sortu den plataforma (Oina-

CCOO: Lan munduan ikusten da beste edozein tokitan baino gehiago euskarak hizkuntza minorizatu gisa dituen ezaugarriak. Horrek nola eragiten dio hizkuntz minorizatuari? Bazterketaren bidez.

UGT: Kanpaina honek bi bide ditu, bata nahi duten langileen euskalduntzean saiatu eta bestea langilegoa mentalki prestatu, etorkizunean normaltzat har dezaten euren lan harremanetan euskara erabiltzea

rriak) eta, bestetik, toki batzuetan sortu ziren langile euskaltzaleen taldeak (Marmari eta Giltza gobernu eta Iruñeko udalean eta Ozenki Telefonikan). Txikiak ginen denok bai Marmari, bai Giltza eta Ozenki eta bitarteko arazo askorekin, baina hasi ziren gauza batzuk egiten eta lorpen batzuk gauzaten.

Lorpenei dagokionez, lorpen bat nabaria da Telefonikan adibidez. Enpresa mistoa izanik, gehiengoa langile kanpotarra izanik, etorkin hauek orain euskara beste modu batez ikusten dute, ez dira euskaltzale bihurtu baina lehen zuten kontrako jarrera ez dute orain azaltzen. Giro hori hobetu egin da.

Kanpainari dagokionez, bestalde, lehendabiziko urtean 160 langilek eman zuen izena euskarazko eskolak jasotzeko eta 115 hasi. Arazoak izugarriak ziren, turnoekin, ordutegiak eta abar. Iaz 150 hasi ziren eta aurten duela aste bat 130 bat berri zegoen apuntatuta. Kontutan hartu, gainera, datu hauetan Telefonica, gobernu eta beste administrazioetako langileak ez direla sartzen, beren bidea dutelako. Datu horietan 2. sektorekoak besterik ez daude. Orain, guzti honekin, benetako jarraipena egin behar dugu, guk sindikatuok, 3. urteari ekingo dioten ikasleek zer nolako bidea egin duten aztertu

eta neurtzeko.

UGT: Euskararen planteamenduan zeresan handia dauka era berean ahaleginaren planteamenduak. Beraz, nik ulertzen dudanez, kanpaina honek bi bide ditu, bata nahi duten langileen euskalduntzean saiatu eta bestea langilegoa mentalki prestatu, etorkizunean normaltzat har dezaten euren lan harremanetan euskara erabil-tzea, horrekin alboraketarik gerta ez dadin.

Ahaleginagatik edota eragozpenak bitarteko, euskara ikastaro batetan hasteko adorerik ez daukatenez, beti ari dira beren seme-alabek ikas dezaten ahaleginetan, beraz euren lan munduan ikusten duten normalkuntzarako joerak, eguneroko bizi-tzan, beren seme-alabekiko, beren ikasketak eredu, beren hezkuntza hautatzerakoan ere eragiten die.

G: Zein neurritakoa da langileak egin behar duen ahalegina?

UGT: Langile batentzat bere lan eguneko 8 orduak egin eta lanetik nekatuta irteaz gain, bere familian eta gizarte ingurunean bete beharreko konpromezuak bete eta gainera egunero bi orduz ikastetxe

UGT: Langile batentzat bere lan eguneko 8 orduak egin, bere familian eta gizarte ingurunean bete beharreko konpromezuak bete eta gainera egunero bi orduz ikastetxe batetan sartu, horri liburuak berriro hartu beharrak gehitzen dion zailtasunarekin, benetan ahalegin handia da.

LAB: Kanpaina honek despolitizazio maila bat ematen dio euskarari, eta demostratu da euskara denona dela eta ez dela bakarrik batzurena.

batetan sartu eta jarraikortasuna eskatzen duen ahalegin batetan ihardun, horri liburuak berriro hartu beharrak, adi egon beharrak eta hainbat kontu jaso beharrak gehitzen dion zailtasunarekin, benetan ahalegin handia da.

G: Langilegoaren kolektiboaren jarraia nolakoa izan da kanpaina hauen aurrean?

UGT: Nik, lan egiten dudana enpresan ikusi dudana egiten eta maila sindikalean apur bat, ez da alboraketarik egon. Nik bederen ez dut baztertzetik ikusi, eta ziur nago jende asko harritu egin dela sindikatuen arteko batasun horregatik. Kasu honetan jarrera neutroan zegoen jendea, hori hor dagoela jabetuz joan da, asimilatu behar duten zerbait dela, egoragozpenik ere bazutenak, kanpainen garapena ikusirik, atzetik ez dagoela ezer ikusten du, gure enpresetan, maila sindikalean izan ditzakegun gatazkekin zerikusirik ez duen zerbait dela ikusten dute, beraz, maila horretan baikorra izan da.

LAB: Nik uste dut despolitizazio maila bat ekarri diola euskarari. Nik badakit neure sindikatutik eta nire ikuspegitik euskara politizatuta egotekotan zergatik dagoen, baina batasun honek despolitizazio maila bat ematen dio euskarari, eta demostratu da euskara denona dela eta ez dela bakarrik batzurena.

Bestalde, eta lorpenei dagokionez, badaude gauza antzemangarriak eta antze-

mangaitzak, ikus daitezkeenak momentuan eta luzera ikusiko direnak. Antzemangarrien artean daude euskara ikastera apuntatu den ikasle kopurua edo Hizkuntza Politikarekin egin dugu tratua konbenioen itzulpenak egiteko.

Beste lorpen bat sindikatuen barneko sarea da. Sindikatu «vasco»etan baze goen jende bat euskara ikasten zihardue na, euskara erabiltzen zuena, baina maila indibidualen. Bi urte hauetan nolabaiteko iraultza izan da eta, ondorioz, esate baterako, guk gure egitura euskalduntzeko plangintza badaukagu. Hemen badaude beste bi sindikatu ere saiakerak egin dituztenak: joan den urtean CCOOko liberatu koadrila bat apuntatu zen euskara ikastera, aurten ELAko beste bat. Horiek lorpenak dira.

Gero kanpora begira daude lorpen antzemangaitzak, giro ona, adostasuna eta abar. Lorpenen artean, alderdi batzuk Nafarroako Parlamentuan aurkeztu duten eskaria dugu, bere helburua diru babesa eskuratzea izanik, konturatu baikara gure ekimenak borondateak direla eta sentibilizazio kanpainak baino gehiago egin behar dugula. Azken momentuan ez bada atera, agian alderdi politikoen arazoengatik izan da, dena dela nolabaiteko lorpen bat da, lorpen bat denok batera aurkeztua izatea Parlamentuan.

Beste inizatiba bat joan den urtean Nafarroako enpresa garrantzitsuei eskutitz bana bidaltzea izan zen, sindikatu guztiek izenpetuta euskararen mugimendu honetan sartzeko eta enpresetan malgutasuna eskatuz. Guk, gutun bat bidali genuen, eta Hizkuntza Politikak beste bat igorri zien enpresa garrantzitsuei, Iruñean eta Iruñetik gertu zeudenei. Agian ez dugu ezer lortu baina inizatibak bideratu ditugu.

Dena den enpresan sartzeari nahiko gauza zaila ikusten dugu. Zenbait lekutan lortu

dira halako akordioak, gure enpresan adibidez, hitzez esan ziguten errotuloak eta halakoak euskaraz idatziko zirela, baina praktikan erdaraz besterik ez dituzte jar-tzen. Sindikatu guztiak bildu direla ikusita ezetz borobila ezin dute esan gure aurrean, baina hain zaila bada errotuloak euskaraz lortzea ikusiko dugu nominak eta abar euskaraz lortzea zer izango den. Dena den, horra jo beharko dugu, hori baita helburuetariko bat.

Bestalde, langabeziaren eta aldibaterako kontratapenaren arazoak ditugu. Langilegoak enpresarekin harreman finkorik lortzen ez badu, zailagoa da talde bat sortzea. Duela hamar urte izan ziren ikastaldeak enpresetan, berez sortuak; baina, orduetik hona gaur arte ez da ia ezer egon. Orain sortu direnak dira, azkenengo urte hauetan enpresan harreman iraunkorra lortu dutenak, azkenengo fijoak edota aldibaterakoak. Bitartean langabezian daudenak hor daude. Gero, ikastoletan eta euskaldundu direnak ere hasiak dira lan mundura etortzen. Horrek lagunduko du.

ELA: Gertatzen da gazte jende hori ez dela, zoritxarrez, lan munduan sartzen. Fernandok aipatu duena egia da, langileen adina zoritxarrez nahiko zaharra da, eta jende gaztea langabezian dago, eta

ELA: Badakigu gure bultzada nahiko borondatetsua dela guda honetan enpresarioak ez baitira bustitzen. Orduan, lehen aipatu dugun bezala, helburua zera da: negoziazio kolektiboen bidez zerbait lortzea, edo dirulaguntza, edo orduak, edo...

langile batentzat bere eguneroko lanaz gain zerbait egitea benetan zaila da, oso gogotsu egon behar du. Gure helburua oraingoz, horixe da: giroa sortu eta euskara gauza normal bezala ikustea. Badakigu gure bultzada nahiko borondatetsua dela guda honetan enpresarioak ez baitira bustitzen.

G: Hori dugu beste gai garrantzitsua. Zein jarrera hartzen du nagusioak ekimen guzti hauen aurrean?

ELA: Ugazabak, Nafarroako Gobernua kenduta edo Telefonica edo beste kasuren bat badago, ez dira bustitzen. Orduan, lehen aipatu dugun bezala, helburua zera da: negoziazio kolektiboen bidez zerbait lortzea, edo dirulaguntza, edo orduak, edo..., zeren uste baitugu langile talde bat sortzen bada normala dela bere lantokian euskara ikastea, hortik aterata zaila baita, oso gogotsu egon behar baitu. Gure ustez, beraz, benetako normalizazioa hortik etorriko da, alegia, negoziazio kolektiboen bitartez.

CCOO: Nire ustez garbi dago, nafar enpresarigoa, salbuespen gutxi batzuk ezik, ez dela batere euskaltzalea. Horrek badu bere garrantzia, Telefonican nabaritu ahal izan genuenez. Telefonicako langileek jakin zutenean zuzendari berria euskaltzalea zela langile gehiagok eman zuen izena euskara ikasteko. Oraingoz halako gizartean gaude, eta ospea dutenak goian daudenak dira: politikoak, enpresariak, aberatsak eta abar. Horietariko bat euskaltzale azaltzen bazaizu, euskarari ospea ematen dio eta jendeak hori ikusten du. Telefonican nabaria izan zen.

LAB: Gure kanpainetan sentsibilizazio eta ikasketa mailan ari gara indarra egiten. Eraginkorrak izan nahi dugu baina ez dugu emaitza onik espero, ingurunea aurka dugulako. Zortzi ordutako iharduera baten ondoren klaseetara joatea, inolako

CCOO: Krisiaren bi aldeak aurka ditugu argi eta garbi, ez bakarrik alde ekonomikoa, baita ideologikoa ere.

konpensaziorik ez, langilegoaren adina bataz beste 40 urtekoa, etabar. Beraz, badakigu ezin dezakegula sekulako emaitzarik lortu.

Nahi badugu euskararen erreibindikazioa enpresetan sartu, lehendabizi euskaldunak sentsibilizatu behar ditugu eta euskaldun gehiago izatea ere lortu behar dugu. Baina inguruak (enpresarigoak, Administrazioak) ez du laguntzen. Badakigu baldintza horiek ditugula. Horrek ez du esan nahi indar egiten jarraitu behar ez dugunik. Gure helburua ez da bihar bertan 1.000 langile euskara ikastera matrikulatzea, baina bai, batez ere, inertzia bat apurtzea. Orain dela 4 urte arte, euskararen aldeko militante sutsuenari baino ez zitzaion bururatzen gauza batzuk euskaraz egin zitezkeela lan munduaren barruan, inertzia guztia erdaraz bideratua baitzegoen. Inertzia hori apurtzeko lehenbiziko urratsak ematen ari gara, hizkuntza baten erabileran familiak, lagun taldeak, lan giroak duten garrantzia izugarria baita eta guk erdararen inertzia hori irauli egin nahi dugu.

CCOO: Krisiaren bi aldeak aurka ditugu argi eta garbi, ez bakarrik alde ekonomikoa, baita ideologikoa ere. Jende gehienak zer nahi du gaur egun? Gauza materialak nahi ditu. Eta euskararekin zer irabazten da? Hau da, langile finko batek zer irabaziko du euskara ikasiz? Ezer materialik ez, eta gainera ahalegin berezia egin behar. Ni neu orain dela 6-7 urte aritu nintzen EGA ateratzeko eta lan han-

dia zen egunero lanetik irten eta Hizkuntz Eskolara joatea eta han bi ordu egitea, eta hori ez urte batean, baizik eta bi edo hiru edo bost edo sei urtetan. Berrogei urteko pertsona batek 3-4-5 urte behar ditu euskara ondo ikasteko, beraz ahalegin gogorra eskatzen du.

Bestalde, nire ustez objetiboki nafar sindikatuak ez gara euskaltzaleak; zein sindikatu nafarrek eskaintzen dio euskarari behar lukeen indarra edo ahalegina? Batek ere ez. Hortik aurrera batzuk besteak baino gehiago egiten dute, eta sindikato bakoitzaren barnean badago jende ezberdina, eta jendearen artean desberdintasunak ere bai. Nafar Langile Komizioak nolakoak dira? Euskaltzaleak? Orokorki euskaltzaleak dira? Ez. Euskararen aurkakoak ere ez, eta bada aurrerapen kokorra. Salbuespenak dira gure sindikatuan euskararen aurka daudenak. Horrelako eritzi bat entzutea zaila da, ez da gertatzen. Baina, Langile Komizioetakoak diren ordezkariak buruz behera sartu dira horrelako kanpainetan? Kopuru bat bai sartu da eta lan egin du, baina gutxiengoa da. Halere, duela lau urtekoarekin alderatuz aurrerapausu txiki bat eman dugu, sindikatu barnean ere bai.

AEK: Emaitzei buruz garbi utzi dute denek, eta uste dut hori bai dela azpimarragarria hori baitzen lehenengo helburua, neurtu behar dela jarreretan eta ez horrenbeste zenbat jende apuntatu den bai-

CCOO: Nire ustez objetiboki nafar sindikatuak ez gara euskaltzaleak; zein sindikatu nafarrek eskaintzen dio euskarari behar lukeen indarra edo ahalegina? Batek ere ez.

ELA: Gainera AEKren aldetik ere eskaintza berezia egiten da, langileentzako ikastaro berezi gisa agertzen da, metodologia propioarekin.

zik eta nolako jarrera sortu den lan munduan euskararen alde.

Baina, bestalde, matrikulazio emaitzei buruz ñabardura bat egin nahi nuke, eta zera da: orain arte berez nahikoa gogo zuena apuntatu da urtez urte matrikulazio arruntean, beraz, pentsatu beharko genuke beharbada izena orain eman duen jende hori jende berria dela. Hori horrela bada, orduan horiek gehitzen diren pertsonak dira. 140 langile bertze modubatez agian etorriko ez lirakeenak. Eta hori ere lorpen praktiko bat da sindikatuen batasun honek eman duena.

ELA: Gainera AEKren aldetik ere eskaintza berezia egiten da, langileentzako ikastaro berezi gisa agertzen da, metodologia propioarekin. Eta horrek ere gehitu egiten du.

G: Hitzarmen honetan noraino sartu dira sindikatuak sindikatu bezala. Noraino dauzka sindikatu bakoitzak erabakiak hartuta euskararen inguruan edo nolabait gaia aztertuta?

CCOO: Duela bi urte Kongresuan onartu zen proposamen bat, bai Euskadi mailan bai herrialde bakoitzean, euskarazko batzordea eraiki behar zela zioena. Hori ez da egin beste herrialdeetan, baina Nafarroan bai eta badaramagu ia bi urte. Hamar pertsonetako da, eta komisio honek egiten ditu lanak kanpo eta barrura begira. Kanpaina honetan nor sartzen da? Badugu zuzendaritzaren babes osoa, arazo

handirik gabe. Benetako lanak nor egingiten dituen? Hamar lagunetako batzordeak eta gero sindikatuaren laguntza dugu ordezkari batzuen bitartez.

ELA: ELA mailan ez dago halako batzorde berezirik. Nik ez dakit hori hobea den ala okerragoa den. Gure sindikatuan sektoreka iharduten dugu. Dena den azkenengo urte hauetan nabaria da, akordiorik gabe baina praktikan urrats garrantzitsuak ematen ari gara. Ikusten da egiturari, eta baita ordezkarien artean ere euskararekiko beste jarrera bat, gogo gehiago. Nabaria da giro egoki bat. Egiturretan ez da inoiz helbururik finkatu gai honetan, baina errudun bezala sentitzen gara eta ondorioz urrats batzuk, txikiak badira ere, ematen ari gara.

UGT: UGTn euskara guztiona dela dugu oinarri, nafar guztion ondare dela. Beraz, Nafarroako errealitate denetik, bere egituraren barnean onartu eta normalizatu beharrekoa dela ulertzen da. Une honetan 5 lagunez osaturiko batzorde bat bada, presakuntzaren alorrari lotua. Dena den, aurrrera eramaten diren ekimen guztietan, hunkipen berezi batetik abiatzen saiatzen da, sindikatu hau osatzen duen multzo larria ikusirik.

UGTn euskaraz hitz egiten duten lagunak badaude eta baita euskaraz hitzerdi-

CCOO: Kongresuan onartu zen, bai Euskadi mailan bai herrialde bakoitzean, euskarazko batzordea eraikitzea. Hori ez da egin beste herrialdeetan, baina Nafarroan bai eta badaramagu ia bi urte.

ELA: Egiturretan ez da inoiz helbururik finkatu gai honetan, baina errudun bezala sentitzen gara eta ondorioz urrats batzuk, txikiak badira ere, ematen ari gara.

rik ere egiten ez dutenak. Erribera aldean afiliatuak nahiz Mendialdean afiliatuak. Beraz, ezaugarri horiek dituen gai bat jorrratzean, eritzi ezberdinak egon daitezke-
elarik, beti saiatzen gara mundu osoa erarik hunkikorrean jorrratzen, hor da-
goen errealtatea denetik ulertuz.

Bidea, gaia normalizatzea da, lehenen-
go eta behin gure erakundearen eta lan
munduaren barruan. Apurka apurka, sin-
dikatu barnean dauzkagun bide informa-
tiboetatik, euskara errealtate normalizat
har dadin saiatzen gara, sindikatuaren
barne ihardueraren bidez. Batzordeak
zaindu eta bultzatu egiten du sindikatuan
euskararen gaia, modu orekatuan eza-
dostasunik gerta ez dadin, gutxika gutxika,
bakoitza bere dinamikaren barruan, nor-
malizazioa sindikatu barrenean betez joan
dadin.

UGT federazioka edo eskualdeka dago
eratuta, beraz, planteamenduak ezberdi-
nak dira batetik bestera. Ezin daiteke au-
rre-erapen berbera eraman Tuterako ingu-
ruan edo Iruñerrian. Piskanaka piskanaka
normalizaziora helduko garelakoan nago.

LAB: Gure sindikatuan, agian gure iza-
ragatik zenbait erabaki hartuta genuen,
bai Euskal Herriko egituretan baita he-
rrialdekoetan ere. Gure propaganda, Eus-
kal Herri mailan eta herrialde mailan ele-
bitan ateratzen da. Hainbat sektoretan

ere, Irakaskuntza, Administrazioan eta
Osakidetzan beti ateratzen da elebitan,
eta orain dela hiru urte erabaki genuen
gure barruko egitura euskaldundu behar
genuela eta hortik abiatuta sortu zen Aho-
lkularitza deiturikoa.

Aholkularitza horrek badu arduradun
nazional bat, eta beste bat herrialde bako-
itzean. Aholkularitza horrek egiten du au-
rretik egiten zena zaindu eta motibazioa
landu erabilpena areagotzeko. Organu
nazionaletan bilera gehienak behintzat bi
hizkuntzetan egiten dira eta lortu da azken
bi urteetan zuzendaritza eta kongresuetan
itzulpen zerbitzuak erabiltzea, jendeak nahi
duenean euskaraz eta ez erdaraz hitzegin
ahal dezan. Erabilpen horrekin batera jen-
dea euskalduntzeko barnetegi eta ikasta-
roak ditugu jarrita. Esan daiteke Nafa-
rroan kanpaina honen aurretik bazegoela
zenbait jende sindikatuak antolatutako
barnetegietara joaten zena.

Gure egiturak ahalegin ekonomiko eta
organizatibo handiak egiten ari dira. Grina
badago eta egitura bat onartuta. Euskara-
ren Aholkularitzaren bidez aurre-erapen
batzuk egiten ari gara, nahiz eta oraindik
bide luzea eduki. Honekin ez dut egoera
goretsi egin nahi, gero beti baitago kon-

UGT: UGT federazioka edo eskualdeka dago eratuta, beraz, planteamenduak ezberdinak dira batetik bestera. Ezin daiteke aurre-erapen berbera eraman Tuterako inguruan edo Iruñerrian. Piskanaka piskanaka normalizaziora helduko garelakoan nago.

traesana teoria eta praktikaren artean.

Esate baterako, askotan prentsa ohar-
rak eta abar bizkor egin behar direnean
erdaraz ateratzen dira, bekatutzat aitortzen
dut, eta hori da normalizatu beharko
genukeena. Produkzioa ez da ia euskaraz
egiten, beraz, zenbait arduradun trebatu
beharko litzateke bere produkzioa, propa-
ganda eta beste egiterakoan euskaraz
egin dezaten eta itzulpena, kasu horietan,
euskaratik erdarara izan dadin eta ez al-
derantziz.

**G: Beste maila orokorragoan kokatuz,
nola ikusten da euskararen egoera lan
munduan?**

ELA: Zaila. Hemen arriskua zera da,
gure kontzientzia nolabait garbitzea eta
halako saiakera borondatez geldi-
tzea. Arriskua hori da. Horregatik, orain
arte eman ditugun urratsak nahiko txikiak
izan dira, baina, bestalde, lehengo egoera
ikusita aurrera goaz. Ze abiaduraz?

Lehen aipatu duguna, edozein langile
bere lanaz gain, bere zortzi orduak lantokian
egin, handik atera eta beste gauzetan
sartzea, horrek zailtasun handiak ditu.
Euskara beste modu batez ikustea lortzen
ari garela uste dut, gauza normal bat be-
zala ikustea, bertako gauza bezala.

**G: Lan munduan euskara normaltze-
ko, sindikatuak ze papera jokatzen dute?**

LAB: Nik galdera hau aurrekoarekin nahi
nuke lotu. Nola ikusten dugu euskara lan
munduan? Oso gaizki, esan daiteke dena
egiteko dagoela, inguru euskaldunetan
ere prozesu produktibo osoa erdaraz bi-
deratzen baita. Ziur nago bai hemen zein
errealitate soziolinguistiko euskaldune-
tan ohizko elkarrietak kenduta gehienbat
erdaraz egiten dela.

Orduan, plangintza bat egitekotan insti-
tuzioak eta mugimendu herritarrek uzta-

**LAB: Orain dela hiru urte
erabaki genuen gure ba-
rruko egitura euskaldundu
behar genuela eta hortik
abiatuta sortu zen Aholku-
laritza deiturikoa.**

tuta beharko du izan. Sindikatuak agente
sozialak gara, baina guk ez daukagu gai-
tasun ezta bitarteko ekonomikorik plan-
gintza hori diseinatzeko. Guk egin dezake-
guna erreibindikatzeko da, eskatzea, eta
erreibindikatu enpresarien eta Adminis-
trazioaren aurrean. Enpresariak, berez ez
dira mugituko ez badute interes edo ez
badute "incentivos materiales" deitzen
dena, eta hori Administrazioak ordaindu
behar du ezinbestean. Sindikatuen pape-
ra dinamizatzailea, erreibindikatiboa izan
daiteke, baina dudarik gabe guk ez dauka-
gu ahalmenik egiazko plangintza bati eki-
teko, bertako langileak langile baitira, ez
tekniko. Kasu guztietan sindikatuak behar
du izan dinamizatzaile, erreibindikatzaile,
baina plangintza Administrazioetik lortu
behar da; eta bilatu behar da enpresarien
inplikazioa. Nola? Kontzientziazte bidez,
pizgarri ekonomikoen bitartez.

**G: Erabakitzeke ahalmena duen nor-
bait etorriko balitz hona galdezka: lan
munduan euskara normaltzeko, zer be-
har da?**

CCOO: Afera ondo kokatu beharko ge-
nuke, batez ere une hauetan. Duela 10-15
urte hona krisialdi baten barnean sartu-
rik gaude. Orain komenio batean ez da
bakarrik kanpoan gelditzen euskararen
gaia, beste asko ere bai. Esan bezala hitz
egitekotan diruz hitz egiten da, finkota-
sunaz edota enpleguaz, eta kitto. Orduan,
euskararen arloan aurrera begira dugun
lana oso zaila da. Gure jarrera, horrelako

kanpainekin jarraitzea da, gure ustez urtero egin behar dira. Matrikulazio eta sentsibilizazio kanpainak oraingoz urtero egiteko dira.

UGT: Administrazio bat egonik, pen-tsatzekoa da gai horren bizkortzaile izan beharko duela eta gizarte agenteek, kasu honetan sindikatuok, laguntzarako egon beharko genukeela. Kanpaina honek duen garrantzia zera da, inor ez bada alderdi normalizatzailea bultzatzeko motore izango, guk eutsiko diogu zeregin horri lan munduan. Garrantzitsuena zera da, ea guk izan behar dugun motoreak ala ez. Kasu honetan horrela behar dugu izan, ez baitago besterik. Saiakera, oraingoz, ez doa gaizki bideratuta, behar bada beste batzuk izan beharko dute bultzada geure laguntzarekin hartu behar dutenak eta lan horretan jarraitu. Baina argi dago norbait egin behar duela, eta kasu honetan guri egokitu zaigu eta gogoz ari gara.

LAB: Euskararen egoera lan munduan oso lotuta dago gizarte euskarak duen egoerarekin. Hiztun kopurua Nafarroan %15 den bitartean eta Administrazioak irakaskuntza osoa euskalduntzeko edo bizitza sozialean euskarari ospea emateko plangintzarik egiten ez badu, euskara lan mundura beranduago etorriko da. Ohituta gaude euskararen aurka dagoen jendearen aldetik esaten dutena entzuteen: euskara zertarako? Hori arbuizatzeko mota askotako erantzunak daude. Bata euskarak ofizialtasun osoa ezagutzea Nafarroan. Gero Administrazioetik euskarari erabilgarritasuna ematea, komunikabideetan, bizitza sozialean politikoei erabiliz ospea emateko, etabar. Plangintza eta eginkizun guzti horietatik etorriko da euskara lan munduan poliki poliki sartzea. Lehen aipatu dudana proposamen parlamentarioan, euskararen plangintzak egiteko enpresariak inzentibatzea eskatzen genuen; bakoitzak bere enpresan bere

produktzio prozesuan errotuluak, etiketa-jea eta marketina ere euskaraz egiteko. Beharrezkoa da ofizialtasuna eztabaidan ez egotea, erabilgarritasuna bultzatzeko irudi kanpainak egitea eta frogatzea euskara erabilgarria dela eta gauza hauek gizarte aurrera joaten diren neurrian bere erreproduktzioa izango dutela lan munduan. Eta azkenik, mundu propio horretarako plangintza berezia prestatzea. Gauza askoren emaitza.

UGT: Okerrena zera da; zenbateraino balio duen ofizialtasunak baden tokietan. Enpresaren lau pareten artean lehentasuna diruak dauka, ekoizpenak. Beraz, zenbateraino da egiazkoa ofizialtasun hori lan munduan, enpresa barruan.

LAB: Euskal ingurune ofizialtasunak ez du joera hausten. Ofizialtasuna neurri multzo bezala bideratu behar da, gizartearen izena hartuz, euskarari izatea emanez, sustatuz, finantziatuz eta eskubideak babestuz. Ez du joerarik moztzen, baina ofizialtasunak Sakana bezalako eskualde batetan oztopoak garbitzen ditu. Gizarteko euskararekiko aurreritzi guzti horiek izateaz gain ofiziala ez dela adierazten dizute, eta hori oztopoak jartzea besterik ez da, ixten den ate bat.

Bestalde, Lesakako Laminazioetan, 78.ean bazen hitzarmen bat errotulazioari eta enpresa hizkuntzari buruzkoa eta orain gutxira arte ezin izan dugu praktikan jarri.

Honek zera esan nahi du, gaur egun

ELA: Hemen arriskua zera da, gure kontzientzia nolabait garbitzea eta halako saiakera borondatestuetan gelditzea.

LAB: Plangintza bat egitekotan instituzioak eta mugimendu herritarrak uztartuta beharko du izan. Sindikatuak agente sozialak gara, baina guk ez daukagu gaitasun ezta bitarteko ekonomikorik plangintza hori diseinatzeko.

mundu pribatuan ofizialtasunak ez duela ezertxo ere bermatzen, ez bada ostera erabilgarritasun plangintza batekin batera, finantziaketarako. Lesakako Lamina-zioetan, kanpaina honen lorpenzat, orain bi urte, deialdi bateratu bategin zen enpresa batzordearen eta Hizkuntza Politikaren eskutik, gai horiek jorrazteko bilera bat egiteko. Mundu pribatuak ez du erantzun-ego ez badago kanpotiko kitzikagarriak (ekonomikoak, teknikoak, gizartze presiokoak); sindikatuok inoiz ez dira indar nahikoaz egongo.

CCOO: Gure lana, langileok euskarren normalizazioan egiten ari garen lana txikia baldin bada ere, eta gaurkoz txikia da argi eta garbi, enpresariena zer esanik ez. Enpresarien jarrera lotsagarria da. Euskarak edo edozein hizkuntzak normalizazioarako bidean, zer behar du? Herri osoaren bultzada. Ez dakit nondik hasi eta non bukatu baina modu batez edo bestez herri osoa sartu behar da prozesu honetan. Langileok hor gaude indar gutxirekin, baina enpresariak ez daude.

AEK: Oinarriak-en ihardunaldietan, Telefonikako Zuzendariak parte hartu zuen lan munduaren inguruko hitzaldi batetan, eta pertsona batek galdegin zuen ea zer egin behar zen enpresan euskararengaita

aurrera eramaten komentatzeko. Telefonikako Zuzendariak horri erantzunez zera esan zuen, euskaran inbertitzea errentagarria zela komenzitu behar zitzaizela. Jarraian zilegi zela esan zuen, baina ez zuen zehaztu nola.

G: Amaitzeko, Nafarroako esperientzia positibo hau beste herrialdeetan zergatik ez da zabaldu? Eta zabaltzeko aukerarik ikusten al duzue?

LAB: Sindikatu bakoitzak bere iritzia izango du, baina nik esango nuke badirela halako baldintza batzuk. Bat izan daiteke "hizkuntzarekiko nafarren eritzia" esango nukeena, izan daiteke folklorismoa, izan daiteke sentsibiltatea baina *lingua navarrorun* aipamen hori hor dago. Baita ere hizkuntzaren egoera, agian Komunitate Autonomoan badago hizkuntza hobeto dagoenaren halako antzemate zuri bat, eta hemen, berriz, badago beste kontsiderazio historiko sentimental bat, hau da, ondare kultural bat galtzeko bidean dagoela eta horren aurrean zerbait egin behar dela.

"Vascuencearen Legea" aurretik zenbait ikerketa egin zen. Esate baterako Jesus Azkona Mauleon UPV-EHUko irakasleak egin zituen bizpahiru azterketa Nafarroako Gobernuak eskatuta Nafarroa osoan, eta halako ondorio nagusira iritsi zen, bere esanetan: "Nafarren herritar gogoan bi sustrai dago, bat foruak eta

UGT: Garrantzitsuena zera da, ea guk izan behar dugun motoreak ala ez. Kasu honetan horrela behar dugu izan, ez baitago besterik. Guri egokitu zaigu eta gogoz ari gara.

CCOO: Langileok euskararen normalizazioan egiten ari garen lana txikia baldin bada ere, eta gaurkoz txikia da argi eta garbi, enpresariena zer esanik ez. Enpresarien jarrera lotsagarria da.

bestea euskara". Sustrai horiek sentimentalak izan daitezke baina indar handikoak direla uste dut.

Beste baldintza bat euskararen alde partidismorik gabe egin behar dela da. Hemen bakoitzak bere alde kapitalizatzeko asmoa baldin badu, ez da batasunik egongo. Oso garrantzitsua da euskara guztiona dela pentsatzea; eta guztiona izan dadin inork ez du kapitalizatu behar, eta denok egon behar dugu prest zerbairetan amore emateko.

CCOO: Zaila da erantzutea. Agian, beharrezkoa ez dela uste delako eta orduan ez da egiten. Edo inori bururatu ez zaiolako ez du inork bultzatzen. Edo gogo ezagatik. Eta laugarrena, agian pertsonen falta. Hau aurrera eramateko, neretzako garbi dago geure sindikatuen artean, lagun zehatzak behar direla.

ELA: Gizartea ere ezberdina da. Hemen nafar sentimendu hori oso ongi finkatuta dago. Nahiz eta ez jakin zer den, baina gauza propio bezala ikusten da.

UGT: Uste dut hemen hainbat zertzelada edo baldintza izan direla eta guztiak batera honako egoera ekarri digutela. Beraz, toki bakoitzean dagozkion zertzeladak edo baldintzak bilatu eta beste mugida bat eratu beharko da. Toki bakoitzak, enpresa bakoitzak bere baldintzak behar ditu eta horiek bilatu egin behar dira. Nire ustez hori edonon da zilegi.

AEK: Ez ote dago halako aurreritzi bat ere: ez dira bateragarriak, beraz ez da egiten. Orduan galdera ondokoa da, norbait saiatu da hori bultzatzen? Edo sindikatuak hasten dira eta oso zaila da, sindikatu bat ez baita saiaturiko beste sindikatu guztiak batzen, beraz kanpoko norbait lehenengo urrats hori emango duena behar da, eta ondoren, hemen bezala, sindikatuek beren martxa hartzen dute eta batzordea eta sindikatuak izango dira hor nagusi.

Beste zailtasun objektibo bat, Komunitate Autonomoan hiru herrialde ezberdin dira eta Nafarroa herrialde bat da, beraz hemen agian sindikatuaren egituretara jotzea oso eskuragarri dugu. Horretarako ezagutu egin behar da herrialde bakoitzaren egitura nolakoa den.

Baina, batez ere hitz egin egin behar da.